

Segurtasunarekin eta ongizatearekin konprometitutako lau ekintzailek neska batek eta hiru mutilek osatutako enpresa bat gara. Lesioak azkar eta eraginkortasunez detektatzen dituen produktu berritzaile bat sortu dugu, eskoletarako bereziki pentsatua, baina beste ingurune batzuetan ere aplikatuak, hala nola kirol-zentroetan eta lantokietan.

Lesioen detekzio goiztiarra hobetzea da gure helburua, prebentzioa eta zaintza erraztuz. Teknologia eta erantzukizun sozialaren batasunean sinesten dugu, guztiontzako ingurune seguruagoak eta osasungarriagoak sortzeko.